

PROPUESTA ESCÉNICA
TDIFERENCIA
DIRECCIÓN MUSICAL
PELLO R. HUICI


MUJERES
CON 2

BEMOLES

UN CONCIERTO CON MUCHO TEATRO

UNA COPRODUCCIÓN DE CORAL BARAÑAIN Y TDIFERENCIA





Errepara diezaiegun, labur bada ere, musikaren historian
izan diren konpositoreen izenci.

Errepara diezaiegun orain musikagile emakumezkoen
izenei.

Ez dira asko, ezta?

Eta hala ere, horretan hasiz gero, herrialde eta garai
orotan aurkituko ditugu emakume musikagileen izenak.

**Barañain abesbatzak, Pello R. Huiciren zuzendarit-
zapean, emakumezkoek sorturiko abesbatza-musika
gozatzerara gonbidatzen zaituzte emanaldi honetan:**

“Baciai per haver vita” Vitoria Aleotti;
“Ego floscampi” Raffaella Aleotti;
“Tu vittime non vuoi” Mariana Martines;
“Huérfano” Emiliana de Zubeldia;
“Astor” Mónica Pacheco;
“Amor Ladrón” Rosa Alarco;
“Corazón Coraza” Beatriz Corona;
“XirmiXarma” Eva Ugalde;
“Zerupeko Izar” Eva Ugalde;
“MutilTxaleko-gorri” Junkal Guerrero



Musika-bokazioa oso gazterik piztu zitzaien **emakumezkoak** dira guztiak ere.


Sortze, ikertze eta interpretazio lanetan prestakuntza bikaineko **emakumezkoak**.


Egiten duten hori zoragarri cgitcaz gain, halako amaraun moduko bat sortzen dute eta gazteak prestatzen dituzte, kultura zabaldu eta iraunarazteko.

Irakasten irakasten duten **emakumezkoak**, pedagogiaren alorrean lan bikaina egiten dutenak.

Haien jatorria zein den argi duten **emakumezkoak**, haien kultur ondarea, haien herri-musika ederki czagutzen dutenak, eta mundu zabalari irckiak.

Herriarekiko sentiberak diren **emakumezkoak**. Izan ere, ez dago benetako kulturarik, bakar batzuen eskura bakarrik baldin badago.





Nor izan ziren emakume horiek, ordea? Nolako bizimodua izan zuten? Nolako bizipenak? Sormen handikoak, bikainak... Baina baita garaian garaiko emakumeak ere. Horietako batzuek haien talentua itzalpean gorde behar izan zuten, beste batzuek talentu horri inor gutxik erreparatzen ziola ikusi, beste batzuek atzerriko askatasuna gozatu zuten...

Maite Redinek eta Nerea Bonitok taularatuko digute emakume horien historia. Haien sentipenak eta bizipenak. Umorea, zirrara eta kidetasuna abesbatza-musikarekin uztartuko dira, lehengo eta oraingo emakumeen istorio bat kontatzeko.

Genero-berdintasuna lantzen duten makina bat antzezlan, musika-ikuskizun eta komedia ekoitzi duen taldea da **Tdiferencia**. Ez da harritzekoa, beraz, musika-lan horiek sortu zituzten emakumeen historia Adriana Olmedoren eta Maite Redinen eskutik jasotzea ikusleak.

Ikusleak hunkitzen duen antzezlan gozagarria da, Barañain abesbatzaren emanaldiarekin ederki ezkontzen dena. Emakume bipil hauen historia eta musika gozabide, barre eragile eta pizgarri gertatuko ahal zaizkizue!

Barañain abesbatza

Iraganaz harro dagoen artista belaunaldi berri batek osatzen du Barañain abesbatza, egitasmo eta emanaldi guztietan ikuslecn gogo-bihotzetan luzaroan irauten duen bizipen magiko eta zirraragarria sortzeko gauza dena.

Abesbatza-musika oinarri harturik, belaunaldi bat baino gehiago biltzen duen talde eklektiko honek denboraldi oro ikuskizun berri eta harrigarri bat eskaintzen asmatzen du, egoki uztarturik hainbat estetika-molde, formatu eta kokapen, inolako konplexurik gabe.

Beti adi musika-lan berriari, errepertorio ezzagunak ezagutarazteko prest, musikagile berriak sor dezaten xaxatuz; baina herritar xeheen eskutik beti, egunerokotasunari loturik.





Bitartekaritza lana

Heda dezagun ikuskizun honen magia agertokitik harago, bultza ditzagun zuen herriko bizilagunak emanaldian parte hartzera... Ez litzateke gauza ederra Barañain abesbatza eta zuen herriko abesbatza elkarlanean aritzea? Ez litzateke zirrargarria herritarra harritzea haren lagunen edo senitartekoren bat abestietako bat kantatzen hasi dela ikustean?

Tdiferencia eta Barañain abesbatzakook ederki dakigu zeinen garrantzitsua den ikusleak antzezlanen parte hartzea, partaide izatea, jendea zaletzeko, antzerkira joateko ohitura pizteko, kultura parte-hartzailea sortzeko. Horregatik proposatzen dizuegu guk zuen herriko abesbatzarekin abesti bat lantzea.

Emanaldi hau ikuskizun hutsa baino zerbait gehiago izatea lortuko dugu elkarrekin: gogoan hartzeko moduko bizipen bat izatea.



www.tdiferencia.com

Maite Redín 607 92 95 82
Adriana Olmedo 600 63 97 94